

GARRAIO EGOKITUKO ZERBITZUA (OHIKOAK EZ DIREN JARDUERETARAKO)

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Adingabea -18 desgaitasunarekin > Laguntza etxean eta/edo bitzita autonomia izateko

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Mugigarritasunaren edo mendetasun-egoeraren muga larriak II. eta III. graduatan dauden pertsonak

Kostua

Koordinaketaren menpe dagoen zerbitzua, pertsonaren egoera ekonomikoaren eta baliabidearen erabileraren arabera.

Baldintzak

Mugigarritasunaren edo mendetasun-egoeraren muga larriak II. eta III. graduatan. Erroldatzea.

Garraio publikorik ezin erabiltzea.

Zertan datza?

Atez ateko garraio-zerbitzua, garraio publikoa erabiltzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat bideratua ([2.7.2.4 fitxa](#)). Mugikortasunari laguntzeko produktuak (gurpil-aulkiak, esku-oheak, taka-takak eta beste) erabiltzen dituzten pertsonen beharretara egokitutako ibilgailuen bidez ematen da zerbitzua, eta garraio-sare publikoaren bidez egin ezingo lituzketen joan-etorriak egiteko aukera ematen die, ohikoak ez diren jarduerak egiteko joan-etorriak egin behar dituztenean.

Norentzat?

II. eta III. graduako mendekotasuna duten pertsonak, mugitzeko muga zorrotzak dituztenak.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Zerbitzua **koordainketaren mende egon daiteke**, hau da, pertsonak zerbitzuaren zati bat ordaindu behar izan dezake bere egoera ekonomikoaren eta erabilera-modalitatearen arabera.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Mugikortasun arazoak eta mendetasun-egoeraren muga larriak II. eta III. graduetan.

Garraio publikoa erabiltzeko aukerarik ez izatea, ezta ibilgailu propio egokitua izatea ere eta, aldi berean, ohiko etxebizitzan eta ibilgailu partikularretan egokitzapenak egiteko **laguntza ekonomikoa** ez eskatzea.

Norberaren etxean bizitzea.

Aurreko 12 hilabeteetan **EAEn erroldatuta** egon izana.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

[Kontsultatu informazio osoa](#)